

UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2010-2013) 2.1. puntuari (Ikerkuntzan berdintasuna sustatzea) zehaztutako **“Emakumeek ikerkuntzan duten parte-hartze maila ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko adierazleak prestatzea”** ekintza betetze aldera, hauek proposatu dira:

- Emakumeek eta gizonek ikerkuntza proiektuetan duten parte-hartzearen ehunekoa, langile guztien artean duten presentziarekin alderatuta:
 - Parte-hartze motaren arabera: Ikertzaile nagusia/ikertzailea
 - Zientzia arloen arabera
 - Adin tartearen arabera
- Ikerkuntza proiektuak zuzentzen dituzten emakumeen eta gizonen ehunekoa, langile guztien artean duten presentziarekin alderatuta:
- Emakumeek eta gizonek zuzendutako proiektuen batez besteko finantziazioa
- Emakumeek eta gizonek kanpoko enpresentzako ikerkuntza kontratuetan duten parte-hartzearen ehunekoa, langile guztien artean duten presentziarekin alderatuta
- Doktorego tesien zuzendarien kopurua eta ehunekoa, zientzia arloen arabera
- Genero ikuspegia kontuan hartzen duten ikerkuntza proiektuen ehunekoa, guztizko proiektu kopuruarekin alderatuta:
 - Parte-hartze motaren arabera: Ikertzaile nagusia/ikertzailea
 - Zientzia arloen arabera
 - Adin tartearen arabera